

# **MUSEOENTZAKO DEONTOLOGIA KODEA, ICOM ERAKUNDEAK EMANA**

---

## SARRERA

*ICOMen Deontologia Kodea*-ren edizio honekin, amaiera eman diogu sei urtez luzatu den berrikusketa-lanari. 2001ean bertsio eguneratu bat argitaratu zen, jatorrizko testuaren egituran oinarrituta, ICOMen *Kodea* museogintzaren orduko praktikaren argitan goitik behera berraztertu ondoren. Orduan aurreikusi bezala, *Kodea* osorik berregituratu dugu oraingoan, eta museoetako profesionalen irudia eta iritzia txertatze aldera egin dugu hori, praktika profesionalaren printzipio garrantzitsuenetan oinarriturik eta jarraibide deontologiko erabatekoa eskainiz. ICOMeko kideek hiru aldiz aztertu dute *Kodea*. Aho batez onartu zen 2004an, ICOMek Seulen egindako 21. Batzar Orokorrean.

Agiriaren oinarrizko balioak lehengo berberak dira: gizarteari, komunitateari, herritarrei oro har eta herritar-taldeei, era bateko eta bestekoei, zerbitzu ematea eta, orobat, museoetan lanean dihardutenen profesionaltasuna. Alderdi bat edo bestea nabarmentzeko orduan badakar agiriak aldaketaren bat, egituraketa berriaren, funtsezko alderdiak azpimarratzearen eta testua lerrokada laburragoetan biltzearen ondorioz, hain zuzen; nolana ere, gutxi dira gauza erabat berriak. Berrikuntza bakarrak 2.11 paragrafoan eta 3., 5. eta 6. ataletako printzipioetan daude.

*Museoetarako Deontologia Kodea* zerbitzu publikoen funtsezko arlo baten autoerregulazio profesionalerako baliabide bat da; izan ere, arlo horretako legedia aldatu egiten da herrialde batetik bestera, eta legedia horiek ez dira bat etorri ohi, hurrik eman ere. Kodeak gutxienezko arau batzuk ezartzen ditu jokamolde eta eginkizun profesionaletarako, zentzuzkoak eta mundu osoko museoetako profesionalek betetzeko modukoak; orobat, herritarrek profesional horiengandik zer espero dezaketen zehazten du, zentzuzko eskakizun batzuk, alegia.

ICOMek, 1970. urtean, *Museoetarako erakusgaiak eskuratzeko deontologia* izeneko argitalpena kaleratu zuen, eta, 1986an, *Deontologia Kode* osoa. Oraingo honek, bai eta 2001eko behin-behineko agiriak ere, asko zor diete bi argitalpen horiei. Dena den, *Kodea* berrikusi eta berregituratzeko lanaren mamia ICOMeko Deontologia batzordekideei egokitu zitzairen, eta, gisa denez, haiei eskertu behar zaizkie bilera presentzialetan eta foro elektronikoetan egin dituzten ekarpenak, bai eta ezarri zaien helburua erdiesteko eta egutegia betetzeko jarri duten gogo bizia. Aurrerago ageri dira aipaturik horien guztien izenak.

Aurreko kodeak bezala, oraingo honek ere gutxienerako arau-multzo orokor bat eskaintzen die elkarte nazionalari eta aditu-talderi, hortik abiatuta beren eskakizun berezietan erantzuteko modua izan dezaten. ICOMek sustatu egiten du, tokian tokiko beharrei erantzute aldera, kode nazionalak eta espezializatuak egin daitezkeen, eta biziki eskertuko du horien kopiak helaraztea. Hona helbidea: ICOMen Idazkaritza Nagusia – UNESCO Etxea – 1 rue Miollis - 75732 Paris Cedex 15 – Frantzia; edo, bestela, hona hemen posta elektronikoaren helbidea: [secretariat@icom.museum](mailto:secretariat@icom.museum)

Geoffrey Lewis

ICOMen Deontologia Batzordeko burua

*2004ko azaroa*

### **ICOMen Deontologia batzordekideak 2001-2004 aldirian**

Batzordeburua: Geoffrey Lewis (Erresuma Batua)

Kideak: Gary Edson (AEB), Per Káks (Suedia), Byung-mo Kim (Koreako Errepublika) eta Pascal Makambila (Kongo) 2002 ezkeretik; Jean-Yves Marin (Frantzia) eta Bernice Murphy (Australia) 2002 arte; Tereza Scheiner (Brasil), Shaje'a Tshiluilu (Kongoko Errepublika Demokratikoa) eta Michel Van-Praët (Frantzia).

# **ATARIKOA**

## **Museoetarako Deontologia Kodearen izaera**

Deontologia Kode hau Museoen Nazioarteko Kontseiluak egin du. ICOMen estatutuetan museoetarako deontologiaren gainean egiten den adierazpenari zor zaio, eta nazioarteko museo-erkidego osoak onartzen dituen printzipioak jasotzen ditu. ICOMen kide izateak eta kideek urtero ordaindu beharreko kuotak ordaintzeak berekin dakarte Museoetarako Deontologia Kodea onartzea.

## **Gutxienerako araudi bat museoentzat**

Kode hau gutxienerako araudi bat da museoentzat. Halako printzipio-multzo bat biltzen du, praktika profesional onargarri eta desiragarri baterako jarraibideetan oinarritutako printzipio-multzo bat, alegia. Herrialde batzuetan, legez edo gobernuak emandako arauz zehazten dira gutxienerako arau batzuk. Beste batzuetan, gutxienerako arauak buruzko jarraibide eta ebaluazioak ematen dira, alegia, “ziurtagirien” bidez, “erregistro-sistemen” bidez edo antzeko balioztatze-sistemen bidez. Gutxienerako arauak zehaztuta ez dagoen lekuetan, ICOMen idazkaritzaren bidez, tokian tokiko ICOMen nazio-batzordearen bidez edo ICOMen Nazioarteko Batzordearen beraren bidez eskura daitezke aholku eta jarraibideak. Nahiko genuke, orobat, herrialde bakoitzak eta museoak atxikitako erakunde espezializatuek kode hau erabiltzea arau osagarriak lantzeko oinarri gisa.

## **Museoetarako Deontologia Kodearen itzulpenak**

ICOMen Deontologia Kodea erakundearen ofizial diren hiru hizkuntzetara itzulita dago: gaztelaniara, frantsesera eta ingelesera. ICOMek begi onez ikusten du beste hizkuntza batzuetara ere itzultzea. Nolanahi ere, ofizialtzat joko bada, gutxienez ICOMen nazio-batzorde batek onartua behar du izan, dena delako hizkuntza hori eskuarki lehenbiziko hizkuntza gisa hitz egiten den herrialderen bateko Nazio Batzorde batek, alegia. Dena delako hizkuntza hori herrialde batean baino gehiagotan hitz egiten bada, hobe da ICOMen herrialde horietako nazio-batzordeei ere aholku eskatzea. Ohartarazi nahi dugu itzulpen ofizial orok behar dituela nahitaez hizkuntza-adituak eta museo-profesional adituak. Gainera, itzulpena egiteko jatorrizko zein hizkuntza erabili den adierazi behar da, bai eta parte hartu duten ICOMen nazio-batzordeen izenak ere. Baldintza hauek ez dute zertan eragotzi Kode osoa edo haren zati bat hezkuntza-lanetarako edo ikerketa-lanetarako itzultzea.

## ATALAK

### **1. Museoek gizateriaren natur eta kultur ondarea zaindu, interpretatu eta sustatzen dute.**

- Instituzioen egitekoa
- Baliabide fisikoak
- Finantza-baliabideak
- Langileak

### **2. Museoek edukitzen dituzten bildumak, haien gain utziak izaten dira, gizartearen onerako eta garapenerako balia daitezten.**

- Bildumak eskuratzea
- Bildumak lekuz aldatzea
- Bildumak babestea

### **3. Museoak jakitatea sortzeko eta sakontzeko lekukotasun baitezpadakoak dira.**

- Lekukotasun baitezpadakoak
- Museoen bilketa- eta ikerketa-lana

### **4. Museoek natur eta kultur ondarea prezatzen, gozatzen, ezagutzen eta kudeatzen laguntzen dute.**

- Aurkezpenak eta erakusketak
- Beste baliabide batzuk

### **5. Museoetako baliabideek aukera ematen dute beste zerbitzu eta onura publiko batzuk eskaintzeko.**

- Identifikazio-zerbitzuak

### **6. Museoak lankidetzan estuan jarduten dira hala bildumen jatorrizko komunitateekin nola beren zerbitzuak jasotzen dituzten komunitateekin.**

- Bildumen jatorria

- Museoen zerbitzua jasotzen duten komunitateenganako errespetua

### **7. Museoak legearen mende jarduten dira**

- Museoen gaineko legedia eta araudia

### **8. Museoak profesionaltasunez jarduten dira.**

- Jokabide profesionala
- Interes-gatazkak

## **GLOSARIOA**

---

### ***Jarduera errentagarriak:***

Erakundearen mesedetarako finantza alorreko onura edo irabaziak bilatzen dituzten jarduerak.

### ***Interes-gatazkak:***

Interes pribatu edo pertsonalek printzipiozko kontraesana sortzen dute testuinguru profesional batean, eta erabakiak hartzerakoan behar den objektibotasunari kalte egiten diote, edo kalte egiten diotela iduri du.

### ***Kontserbatzaile -zaharberritzailea:***

Kultur ondasun bat kontserbatzeko eta zaharberritzeko azterketa eta lan teknikoak egiteko gaitasuna duen museoko langilea edo langile autonomoa. Informazio gehiago izateko, ikusi *Noticias del ICOM* argitalpenaren 39. zenbakia (1), 5-6 orrialdeak (1986).

### ***Behar bezalako zuhurtasuna:***

Bidezko erabakiak hartu aurretik, kasu batean gertakariak argitzeko behar diren bide guztiak erabiltzeko betebeharra eta, zehatzago, objektu baten jatorria eta historia jakitekoa, objektua eskuratu edo erabili baino lehen.

### ***Museoa<sup>1</sup>:***

Gizartearen zerbitzuan eta haren garapenari begira diharduen erakunde iraunkorra, irabazi asmorik gabea, publikoari irekia, herrien eta herrialdeen lekukotza ukigarria zein ukiezina eskuratu, kontserbatu, ikertu, jakinarazi eta erakusten duena, betiere ikerketa, heziketa eta gozamena helburu.

### ***Gutxieneko arau eta betebeharrak:***

Museo guztiek eta horien menpeko profesionalek bete behar dituzten arau eta betebeharrak. Herrialde batzuetan irizpide propioak dituzte gutxieneko arau eta betebeharrak ezartzeko.

***Irabazi asmorik gabeko erakundea:***

Legez sorturiko erakundea, ordezkarriz pertsona juridiko edo fisiko bat duena, eta diru-sarrerak –soberakin edo mozkinak barne– erakundearen beraren mesedetarako eta funtzionamendurako soil-soilik erabiltzen dituen.

***Zuzendaritza-organoa:***

Museo baten iraunkortasunaren, garapen estrategikoaren eta finantzaketaren ardura duten pertsonak edo taldeak, museoari gaitasuna ematen dioten arauari jarraiki.

***Kultur Ondarea:***

Balio estetiko, historiko, zientifiko edo espirituala duen objektu edo kontzeptu oro.

***Natur Ondarea:***

Erkidego baten iritziz, garrantzi zientifiko edo espirituala duen objektu, gertakizun edo kontzeptu oro.

***Jatorria:***

Objektu baten aurrekari guztiak –jabetza eskubideak barne hartuta–, objektua aurkitu edo sortu denetik honakoak, haren benekotasuna eta jabetza egiazta ditzaketenak.

***Museoko profesionala<sup>1</sup>:***

Museoko profesionalen artean sartzen dira, batetik, museo eta erakundeetako langileak (ordainduak eta ez-ordainduak), Estatutueto 2. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan emandako definizioaren arabera, zeintzuek gaitasun espezializatua jaso baitute edo beharrezko esperientzia bildu, museo baten kudeaketa eta eragiketarekin loturiko alorretakoren batean. Bertan sartzen dira, bestetik, ICOMen Etika Profesionalaren Kodea errespetatzen duten eta aipaturiko definizioaren arabera museoetarako edo erakundeetarako lan egiten duten pertsona independenteak. Ez dira sartzen, ordea, museoen eta haien zerbitzuen eskariz merkataritza-produktuak sustatzen edo erabiltzen dituzten pertsonak.

### ***Jabetza-titulu baliioduna:***

Objektu baten gaineko jabetza zalantzagabea, aurkitu edo sortu zenetik dituen aurrekariak babestuta.

### ***Jabetza-titulua:***

Dena delako herrialdean jabetzarako eskubide legekoa den hori. Herrialde batzuetan, gerta liteke kontzesio bidez emandako eskubidea izatea, eta ez aski izatea behar bezalako bilaketa baten baldintzak betetzeko

### ***Merkataritza transakzioa:***

Partikular edo erakundeek objektuak irabazteko asmoarekin saldu edo erostea.

### ***Balioztatzea:***

Objektu edo ale bat benetakoa dela egiaztatzea objektua edo alea balioztatzea. Termino honek, herrialde batzuetan, zergak arintzeko asmoz egiten den dohaintza baten balioztatze independentea adierazten du.

<sup>1</sup> *Esan behar da Museoetarako Deontologia Kodean erabiltzen diren “museoa” eta “museoko profesionala” terminoen definizioa behin-behinekoak direla, hau da, Kodea interpretatzeko baliatzen direla. ICOMen Estatutuetan erabiltzen diren “museoa” eta “museoko profesionala” terminoen definizioak agiri honen berrikusketa bukatu arte izango dute balioa.*

## **1. Museoek gizateriaren natur eta kultur ondarea zaindu, interpretatu eta sustatzen dute.**

Printzipioa: *Museoek natur eta kultur ondarearen ardura dute, hala ondare materialarena nola materiagabearena. Museoen zuzendaritza-organoeak eta museoen orientazio estrategikoarekin eta ikuskatzearekin zerikusia dutenek baitezpadako erantzukizuna dute ondare hori zaindu eta sustatzeko; halaber zaindu eta sustatu behar dituzte horretarako jartzen diren baliabideak, hala giza baliabideak nola fisikoak eta finantzaketakoak.*



## **ERAKUNDE-IZAERA**

### *1. 1 Gaitasuna ematen dioten agiriak*

Museo baten zuzendaritza-organoak ziurtatu behar du museoak idatzizko araudi, estatutu edo bestelako agiri publiko bat izatea, argitaratua eta herrialde horretako legediarekin bat datorrena. Agiri horiek argi eta garbi adierazi behar du museoaren izaera juridikoa, haren misioa, iraunkortasuna eta irabazi asmorik gabeko entitatearen izaera duela.

### *1.2 Misioaren, helburuaren eta politiken deklarazioa*

Museoaren zuzendaritza-organoak deklarazio bat egin behar du museoaren misioa, helburuak eta politikak aldarrikatuz eta zuzendaritza-organoaren eginkizunak eta osaera zehaztuz, eta deklarazio horri zabalkundea eman behar dio, eta bertan adierazitako guztiari men egin.

## **BALIABIDE FISIKOAK**

### *1. Lokalak*

Museoaren zuzendaritza-organoak lokal eta ingurumen egokiak hautatu behar ditu museorako, haren misioan zehaztutako eginkizunak behar bezala betetzeko.

### *1.4. Sarbidea*

Museoaren zuzendaritza-organoak ziurtatu behar du guztiek izan dezatela museora sartu eta bertako bildumak ikusteko aukera, eta, horretarako, arrazoizko orduak eta garai betiberdintsuak eskaini behar ditu. Arreta berezia jarriko da beharizan bereziak dituzten pertsonentzat.

### *1.5. Osasuna eta segurtasuna*

Museoaren zuzendaritza-organoak bermatu behar du osasunari, segurtasunari eta irisgarritasunari dagozkion arauak aplikatuko zaizkiela hala langileei nola bisitariei.

### *1.6. Ezbeharren aurkako babesa*

Museoaren zuzendaritza-organoak ezbeharren kontrako neurriak ezarri behar ditu, bisitariak eta langileak, bildumak eta beste baliabide batzuk ezbehar naturaletatik edo gizakiek eragindakoetatik babesteko neurriak, hain zuzen.

#### *1.7. Segurtasunari dagozkion eskakizunak*

Zuzendaritza organoak behar diren segurtasun-baldintzak bermatu behar ditu bildumak lapurretetatik babesteko, eta, orobat, beira-arasetan, erakusketetan, biltegietan, lantokietan eta garraio-lanetan gerta daitezkeen kalteetatik babesteko.

#### *1.8. Aseguruak eta kalte-ordainak*

Aseguru-etxe pribatu batek bildumak babesten baditu, zuzendaritza-organoaren betebeharra da egiaztatzea ea arriskuen estaldura egokia den, eta ea iragaitzaz edo maileguan dauden objektuak –edo museoaren ardurapean bestelako formularen bitartez dauden objektuak– babes horretan sartzen diren. Aseguru publiko bat (*Government Indemnity Scheme*) erabiltzen denean, museoaren jabetzakoa ez den materiala behar bezala babestu behar da.

## **FINANTZA BALIABIDEAK**

#### *1.9. Finantzaketa*

Zuzendaritza-organoari dagokio museoaren jarduerak gauzatzeko eta garatzeko behar diren diru-funtsak eskuratzea. Funts guztien kudeaketak profesionala izan behar du, eta haien erabileraren kontu eman beharko da.

#### *1. 10. Merkataritza-politika*

Museoaren zuzendaritza-organoak gutun antzeko bat eduki behar du, museoak bere jardueren bitartez beregana ditzakeen diru-sarrerei buruz edo kanpotik eskura ditzakeenei buruz. Edozein dela ere finantza-iturria, museoek beren programa, erakusketa eta jardueren edukia eta osotasuna kontrolatu behar dute. Diru-sarrerak eragiten dituzten jarduerak ez dute zertan arrisku pean ezarri museoaren edo bisitarien eskakizun-mailak. (*Ikus 6.6. atala*)

## **LANGILEAK**

#### *1. 11 Enplegu politika*

Museoaren zuzendaritza-organoak arretaz begiratuko du langileei eragiten dien neurri oro bat etor dadin museoaren politikekin eta legezko prozedura eta arauekin.

#### *1.12 Museoaren zuzendaria edo burua izendatzea*

Museoaren zuzendari nagusiaren karguak berebiziko garrantzia du. Beraz, zuzendaritza-organoak, kargu hori beteko duen pertsona hautatzeko orduan, kontuan hartu behar ditu kargu hori behar bezala betetzeko behar diren ezagupen eta gaitasunak. Horien artean sartu beharko da adimen-gaitasun eta ezagupen profesional egokia, bai eta jokabide etiko bikain bat izatea ere.

#### *1.13 Zuzendaritza-organoetan parte hartzea*

Museoaren zuzendariari edo buruari dagokio zuzendaritza-organoen erantzukizuna, eta zuzen-zuzenean parte hartuko du zuzendaritza-organoetan.

#### *1.14 Museoetako langileen gaitasuna*

Langile gaituak behar ditu museoak, ardura guztiei erantzuteko behar diren gaitasuna eta jakitatea dituztenak (*ikus 2.18, 2.23 eta 8.12 atalak*).

#### *1.15 Langileen prestakuntza*

Langile guztiei etengabeko prestakuntza eta hobekuntza profesionalerako aukerak eskaintzeko modua antolatu behar du museoak, lan-indar eraginkorra edukitze aldera.

#### *1.16 Gatazka deontologikoa*

Zuzendaritza-organoak ezin eskatuko die museoko langileei ICOMen Deontologia Kodea, legedi nazionala edo gainerako deontologia kode espezifikoak urra ditzakeen moduan jokatzeko.

#### *1.17 Langileak eta boluntarioak*

Museoaren zuzendaritza-organoak borondatezko lanaren gaineko politikari buruzko gutun edo idazki bat eduki behar du, eta politika horrek boluntarioen eta museoko langileen arteko harreman ona bultzatu behar du.



### *1.18 Boluntarioak eta deontologia*

Zuzendaritza-organoak ziurtatu behar du boluntarioek, museoko jardueretan eta beren bestelako jardueretan ari direla, behar bezala ezagutzen dituztela ICOMek museoentzat emandako deontologia-kodea eta aplikatzekoak diren gainerako kode eta legeak.

## **2. Bildumak museoan esku uzten dira, zain ditzaten eta gizartearen onerako eta garapenerako balia daitezten.**

*Printzipioa: Museo baten egitekoa bildumak eskuratzea, gordetzea eta sustatzea da, ondare naturala, kulturala eta zientifikoa zaintzen laguntzeko. Bildumak herri-ondarearen zati garrantzitsua dira, legeak tratamendu berezia ematen die, eta nazioarteko zuzenbidearen babespean daude. Herri-intereseko eginkizun horrek berekin darama administrazio onaren ideia, eta horren barruan sartzen dira jabetza legitimoa, iraunkortasuna, dokumentazioa, eskuragarritasuna eta ondasunez arduraz xedatzea.*

### **BILDUMAK ESKURATZEA**

#### *2. 1. Bildumei buruzko politika*

Museo bakoitzaren zuzendaritza-organoak bildumei buruzko politikaren gaineko gutun bat egin eta argitaratu behar du, bildumak eskuratzeari, zaintzeari eta erabiltzeari buruzko politikaren gainekoa, alegia. Gutun horretan katalogatu, gorde edo erakutsiko ez diren objektuekin nola jokatu den argitu beharko du (*ikus 2.7 eta 2.8 atalak*).

#### *2.2 Jabetza-titulu balioduna*

Museo batek erosketa bidez, dohaintza edo mailegu, lagapen edo truke bidez, objektu edo ale bat eskuratu aurretik, ziurtatu beharko du objektu edo ale horrek baduela jabetza-titulu baliodun bat. Herrialde batean legeko jabetzaren frogaren den hori ez da nahitaez baliodun titulua.

### *2.3 Jatorria eta behar bezalako ardura*

Ahalegin guztiak egingo dira ziurtatzeko ezen erosketa, dohaintza, mailegu, legatu edo truke bidez eskainitako objektu edo aleak ez direla legez kanpo eskuratu edo esportatu beren jatorrizko herrialdetik edota iragaitzaz egondako herrialderen batetik, nahiz eta herrialde horretan –museoa kokatuta dagoen herrialdea barne– haren jabetza legezkoa izan. Horretarako, behar bezalako arduraz jokatu da objektuaren ibilbide osoa, aurkitu edo sortu zenez gerokoa, berrosatzeko.

### *2.4 Landa-lan ez-zientifikoetatik edo baimenik gabekoetatik eratorritako objektuak eta aleak*

Museo batek ez du objekturik eskuratuko baldin eta zentzuzko arrazoiak badaude pentsatzeko dena delako objektu hori landa-lan baimenik gabekoez edo ez-zientifikoek eskuratu direla, edo monumentuak, gune arkeologiko edo geologikoak edo animalia-espezieak edo natur habitatak nahita hondatuz edo kalte eginez eskuratu direla. Halaber, ez du objekturik eskuratu behar lur-sailaren jabeari edo okupatzaileari, edo dagokion legezko agintaritzari edo gobernu-erakundeari aurkikuntzaren berri jakinarazi gabe.

### *2.5 Kultur material delikatuak*

Giza hondakinen edota objektu sakratuen bildumak eskuratuko badira, segurtasunez gorde ahalko direla eta errespetuz erabili ahalko direla bermatu behar da. Eta segurtasunez gorde eta errespetuz erabiltze hori profesionaltasunari dagozkion eskakizunen arabera egingo da, eta elementu horien jatorri diren komunitate, talde etniko edo erlijiosoetako kideen interes eta sinismenak aintzat hartuz, baldin eta ezagutzen badira (*ikus 3.7 eta 4.3 atalak*).

### *2.6 Babestutako ale biologiko edo geologikoak*

Museo batek ezin ditu eskuratu ale biologiko edo geologikoak baldin eta basa-fauna eta -flora batesteko edo natura zaintzeko arauak (tokian tokiko, eskualdeko edo nazioako legediak ezarriak nahiz nazioarteko lege edo itunek ezarriak) urratuz bildu, saldu edo eskualdatu badira.

### *2.7 Izaki bizidunen bildumak*

Baldin eta bilduma batek izaki botaniko edo zoologiko bizidunak baditu, begiramen berezia zor izango zaie izaki horien jatorrizko ingurune naturalari eta sozialari, bai eta basa-fauna eta -flora babesteko edo natura zaintzeko lege eta itunei ere (tokian tokikoei, nazioekoei, eskualdekoei nahiz nazioartekoei).

## *2.8 Bilduma praktikoak*

Bildumei buruzko politikak aurreikuspen bereziak izan ditzake bilduma-mota jakin batzuetarako, bilduma horien xede nagusia, objektua edo alea bera zaintzea baino gehiago, prozesu kultural, zientifiko eta teknikoaren kontserbatzea denean, edota objektuak edo aleak erabilera arrunterako edo hezkuntza-eginkizunetarako biltzen direnean (*ikus 2.1 atala*).

## *2.9 Museoaren bilduma-politikaz kanpoko eskuratzeak*

Museoak ezin du objekturik edo alerik eskuratu berak ezarritako politikatik kanpo, salbuespenezko kasu batzuetan ez bada. Zuzendaritza-organismoek, kasu horietan, kontuan hartu behar ditu eskura dituen iritzi profesionalak, bai eta alderdi interesatu guztien iritziak ere. Aintzakotzat hartu behar du, orobat, zer garrantzi duten dena delako objektu edo ale horrek eta bere ingurumenak kultur eta natur ondarean; kontuan hartu behar du, halaber, horrelako piezak biltzen dituzten beste museo batzuek ere interes berezirik ba ote duten. Alabaina, kasu hauetan ere, ez da eskuratuko objekturik jabetza-titulu balioudunik gabe (*Ikus 3.4 atala*).

## *2. 10 Museoko zuzendaritza-batzordeko kideek edo museoko langileek eskaintzak egitea*

Baldin eta museoko zuzendaritza-organismoetako kideek edo museoko langileek, edo horien ahaideek edo hurbilekoek objekturen bat eskaintzen badiote museoari, dela eros dezan, edo emaitza gisa edo zerga-onuradun opari gisa onar dezan, kontu handia eduki behar du horri buruzko erabakia hartzerakoan.

### *2.11 Azken buruko gordetzailea*

Deontologia-kode honek ez du bere xedapenetan inolako eragozpenik museo bat izan dadin jatorri ezezaguna edo legez kanpoko duten ale edo objektuen gordailu baimendua, baldin museoaren jurisdikzioan bildu edo berreskuratu badira.

## **BILDUMAK BESTERENTZEA**

### *2.12 Legezko besterentzea edo bestelako ahalmen batzuen bidezkoa*

Museo batek, legeak aitorturik, bildumak besterentzeko ahalmena duenean, edota besterentzeko baldintza jakin batzuk dituzten objektuak eskuratu dituenean, zorrotz eta estu errespetatu behar ditu legezko edo bestelako betebeharrak eta prozedurak. Hasierako eskuraketa nahitaezko edo bestelako mugen mende badago, errespetatu egin behar dira, salbu eta argi eta garbi frogatzen bada konpliezina direla edo erakundearentzat arrazionalak. Bidezkoa bada, muga horiek kentzeko modua bilatuko du museoak legezko prozeduren bidez.

### *2.13 Museo baten bildumako objektuak edo aleak besterentzea*

Museo baten bildumetako objektuak edo aleak besterentzeko, beharrezkoa da objektu edo ale horien garrantzia, izaera (berriztagarria edo ez) eta egoera juridikoa ondo baino hobeto ezagutzea. Besterentzeak, gainera, ezin dio kalterik eragin interes publikoari.

### *2.14. Besterentzearen erantzukizuna*

Bilduma bateko ale edo objektu bat besterentzeko erabakiaren erantzukizuna zuzendaritza-organoarena da, eta museoko zuzendariarekin eta bilduma horren zaintzailearekin batera jardungo da. Bilduma praktikoetan modalitate espezifikoak aplikatu ahal dira. (*Ikus 2.7; 2.8*)

### *2.15 Bildumetatik kendutako objektuak besterentzea*



Museoak zehazturik eduki behar du politika bat, objektu bat bilduma batetik behin betiko kentzeko zein modu diren zilegi zehaztuz; alegia, zehaztu behar du noiz den zilegi dohaintza, eskualdatzea, trukatzea, saltzea, aberriratzea edo suntsipena tarteko objektu bat bilduma batetik kentzea, eta noiz den zilegi eskuratzaileri objektu horren gaineko titulua inolako mugarik gabe eskualdatzea. Museoak erregistro batean jaso beharko du bilduma bateko objektu edo ale bat besterentzeko erabaki guztien berri, besterendutako objektu eta ale guztien berri eta besterentze-egintza guztien berri. Bilduma bateko ale edo objektu bat besterentzerakoan, lehenbizi beste museo bati egin behar zaio eskaintza.

#### *2. 16 Bildumak besterentzeak eragindako diru-sarrerak*

Museoek guztiontzat zaintzen dituzte bildumak, eta ezin dituzte erabili diru bihur daitezkeen aktibo gisa. Museo bateko bildumetako objektuak edo aleak besterentzeak ekarritako diru-sarrera edo ordainak bildumaren onurarako baizik ezingo dira erabili, eta, oro har, eskuratzeko berriak egiteko.

#### *2. 17 Museoak besterendutako bildumak erostea*

Museo bateko langileek edo zuzendaritza-organoetako kideek, bai eta haien senitarteko edo hurbilekoek ere, debekatua dute beren ardurapeko bilduma batetik kendutako objektuak erostea.

### **BILDUMAK BABESTEIA**

#### *2. 18 Bildumen irautea*

Museo batek politika bereziak ezarri eta aplikatu behar ditu, bere bildumak (hala iraunkorrak nola aldi baterakoak) eta haiei atxikitako informazioa –behar bezala erregistratua– ahalik eta ondoen eta seguruen utz dakien hurrengo belaunaldiei, betiere gaur egungo ezagutza eta baliabideen arabera.

## *2. 19 Bildumen gaineko erantzukizuna eskuordetzea*

Bildumak zaintzeko erantzukizun profesionala ezagutza eta gaitasun egokiak dituzten pertsoneri esleitu behar zaie, edota behar bezalako ikuskaritzaren pean diharduten pertsoneri (*Ikus 8.11 atala*).

### *2.20 Bildumen dokumentazioa*

Museo bateko bildumak alor horretan ohikoak diren arau profesionalen arabera dokumentatu behar dira. Dokumentazio horretan, honako hauek egon beharko dira jasota: objektu bakoitzaren identifikazio eta deskripzio osoak, hari atxikitako elementuak, jatorria, egoera, izan duen tratamendua eta oraingo kokalekua. Datu horiek toki seguru batean eduki behar dira, eta bilaketa-sistemak jarriko dira museoko langileek eta legezko baimena duten erabiltzaileek kontsultatu ahal ditzaten.

### *2.21 Ezbeharren aurkako babesa*

Bereziki landu behar dira gatazka armatuetatik eta hondamendi naturaletatik edo gizakiak eragindakoetatik bildumak babesteko politikak.

### *2.22 Bildumen eta atxikitako datuen segurtasuna*

Bildumei buruzko datuak publikoaren esku jartzen badira, museoek eragotzi egin behar dute informazio pertsonala eta beste isilpeko datu batzuk zabal daitezen.

### *2.23 Prebentzio-kontserbazioa*

Prebentziorako kontserbazioa elementu garrantzitsua da museoaren politikan eta bildumen zainketan. Museoetako profesionalen erantzukizuna da beren ardurapean dituzten bildumak (hala gordeta dituztenak eta erakusgai dituztenak nola iragaitzaz daudenak) zaintzeko babes-ingurune bat sortu eta atxikitzea.

### *2.24 Bildumak kontserbatzea eta zaharberritzea*

Museoak arretaz ikuskatu behar ditu bildumak, zehazki jakiteko noiz duen objektu edo ale batek kontserbatzeko edo zaharberritzeko premia edota aditu kualifikatu baten zerbitzuena. Helburu nagusia objektu edo alea egonkortzea da. Kontserbatzeko prozedura guztiak dokumentatu behar dira, eta prozedura horiek ahal bezain itzulgarriak izan behar dira. Halaber, jatorrizko objektu edo alearen aldaketa oro erraz identifikatzeko modua izan beharko da.

#### *2.25 Animalia bizien ongizatea*

Animalia biziak gordetzen dituen museoak haien osasuna eta ongizatea zaintzeko erantzukizun osoa hartu behar du bere gain. Museoak segurtasun-araudi bat egin eta ezarri beharko du bere langileak eta bisitariak babesteko, bai eta animaliak babesteko ere. Segurtasun-araudi hori al baitari aditu batek onartua behar du izan. Aldaketa genetiko oro erraz identifikatzeko modua izan beharko da.

#### *2.26 Museoko bildumen erabilera pertsonala*

Museoetako langileek eta zuzendaritza-organoetako kideek, haien senitarteko eta hurbilekoek eta beste batzuek debekatua izango dute museoeko bildumetako objektuak bereganatzea, baita aldi baterako bada ere.

### **3. Museoak jakitatea sortzeko eta sakontzeko lekukotasun baitezpadakoak dira.**

*Printzipioa: Museoek bete behar bereziak dituzte gizartearekiko, beren bildumetan pilatu eta kontserbatu dituzten lekukotasun baitezpadakoen babesari, eskuragarritasunari eta interpretazioari dagokienez.*

## **LEKUKOTASUN BAITEZPADAKOAK**

### *3.1 Bildumak lekukotasun baitezpadakoak dira*

Museo baten bilduma-politikak argiro azpimarratu behar du bildumok lekukotasun baitezpadako gisa duten garrantzia. Orobat begiratu behar du ez daitezela izan unean uneko joera intelektualak edo museoaren ohiturak garrantzi horren neurgailuak.

### *3.2 Bildumen eskuragarritasuna*

Museoen betebeharra da bildumak ahal den neurrian dohain jartzea jendearen eskura, bai eta horiei buruzko informazioa ere, betiere kontuan hartuta isilpekotasunari eta segurtasunari zor zaizkion mugak.

## **MUSEOETAKO BILKETA ETA IKERKETAK**

### *3.3 Bilketak lekuan bertan egitea*

Museo batek lekuan bertan egin nahi baditu bilketak, horri dagozkion arau zientifikoak gorde behar ditu, bai eta lege nazionalak eta nazioarteko hitzarmenek ezarritako betebeharrak ere. Lekuan bertan egiten diren bilketek beti hartuko dituzte aintzakotzat tokiko komunitateen ikuspegiak, haien ingurumen-baliabideak eta kultur praktikak; halaber, leku horretako kultur eta natur ondarea handitzeko eginahalak egin beharko dituzte.

### *3.4 Lekukotasun baitezpadakoen aparteko bilketa*

Aparteko kasuetan, gerta liteke zehaztu gabeko jatorria duen objektu batek berezko balio bikaina izatea jakintzaren aldetik, eta interes publikoak objektu hori kontserbatzea eskatzea. Era horretako objektu bat museoko bildumarako onartzeko, arlo horretako aditu baten erabakiari jarraituko zaio, eta ezingo zaio kalterik egin ez nazioko ez eta nazioarteko interesari (*Ikus 2.11*)..

### *3.5 Ikerlanak*

Museoko langileek egiten dituzten ikerlanek museoaren misioarekin eta helburuekin eduki behar dute zerikusia. Ikerlanok legearen, etikaren eta zientziaren arloetan ezarritako ohituren arabera egingo dira.

### *3.6 Analisi suntsigarriak*

Museo batek analisi-teknika suntsigarriak erabiltzen dituztenean, analizatutako material guztia, analisisen eta ondoko ikerketen emaitzak eta horiei buruzko argitarapenak dena delako objektu horri buruzko erregistro iraunkorrean jaso beharko dira.

### *3.7 Giza hondakinak eta objektu sakratuak*

Giza hondakinei eta objektu sakratuei buruzko ikerketak arau profesionalei jarraiki gauzatu behar dira, elementu horien jatorrizko komunitate, talde etniko edo erlijiosoek dituzten interes eta sinismenak errespetatuz, baldin eta ezagunak badira (*Ikus orobat 2.5 eta 4.3 atalak*).

### *3.8 Ikerketa materialaren gaineko eskubideen jabetza*

Museoko langileek aurkezpen bat egiteko materiala prestatzen dutenean, edota lekuan bertan egindako ikerketa bat dokumentatzeko materiala prestatzen dutenean, hitzarmen argi bat egin beharko da museoaren babeslearekin, material hori prestatzeko lanaren gaineko eskubide guztiei buruzkoa.

### *3.9 Jakintza partekatua*

Museoetako langileek beren ezaupideak eta esperientzia profesionala partekatu behar dituzte beren kideekin eta zerikusia duten arloetako ikertzaile eta ikasleekin. Begirunea eta esker ona erakutsi behar diete, halaber, beren irakasle izan direnei. Orobat, beren aurrerapen tekniko eta esperientzia interesgarriak partekatu behar dituzte beste batzuekin, beste horientzat onuragarri izan badaitezke.

### *3. 10 Museoen arteko eta museoen eta beste erakunde batzuen arteko elkarlana*

Antzeko interesak eta antzeko bildumak dituzten erakundeek aholku eman behar diote elkarri, eta elkarlanean jardun behar dute, eta museoetako langileek onartu eta sustatu egin behar dute hori. Unibertsitate-irakaskuntzako erakundeei eta zenbait zerbitzu publikori dagokie bereziki betebeharrak hori, horien ikerketek bilduma garrantzitsuak sor baititzakete, eta gerta bailiteke bilduma horiek ez izatea epe luzearako segurtasunik

## **4. Museoek natur eta kultur ondarea preziatzen, gozatzen, ezagutzen eta kudeatzen laguntzen dute.**

*Printzipioa: museoek eginbehar garrantzitsua dute beren hezkuntza-funtzioa garatzen eta zerbitzatu duten komunitatetik, herritik edo taldetik ahalik eta publiko zabalena erakartzen. Museoen hezkuntza-funtzioaren barruan sartzen dira komunitatearekiko harremana eta bere ondarea sustatzea .*

## **AURKEZPENAK ETA ERAKUSKETAK**

### *4. 1 Aurkezpenak, erakusketak eta jarduera bereziak*

Aurkezpenak eta behin-behineko erakusketak, bai materialak bai birtualak, museoak deklaratuak politika, misio eta helburuen arabera izango dira. Aurkezpenek eta erakusketek ez dute kalterik eragingo bildumen kalitatean, babesean edo kontserbazioan.

### *4.2 Erakutsitako elementuen interpretazioa*

Museoek segurtatu behar dute aurkezpen eta erakusketetan eskainitako informazioa benetakoa eta zuzena dela, eta behar bezala hartzen dituela aintzakotzat bilduman ordezkatuak sinismenak edo taldeak.

#### *4.3 Objektu delikatuak erakustea:*

Giza hondakinak eta objektu sakratuak arau profesionaleri jarraiki aurkeztu behar dira, elementu horien jatorrizko komunitate, talde etniko edo erlijiosoek dituzten interes eta sinismenak errespetatuz, baldin eta ezagunak badira. Sotiltasun handiz aurkeztuko dira, herri guztiek eduki ohi dituzten giza duintasunezko sentimenduak errespetatuz.

#### *4.4 Aurkezpen publikoetatik kentzeko eskariak*

Baldin eta, giza hondakinak edota objektu sakratuak jendaurrean aurkezten direnean, jatorrizko komunitateek eskatzen badute elementu horiek jendaurreko erakusketatik kentzeko, museoak berehala erantzun beharko dio eskaera horri, errespetuz eta sentikortasunez. Berdin jokatu du hondakin eta objektu horiek itzultzeko eskatzen zaionean ere. Museoek, beren politikan, argi eta garbi zehaztu behar dute horrelako eskaerei erantzuteko prozedura.

#### *4.5 Jatorri ezezaguna duten objektuak aurkeztea*

Museoek ahalegina egin behar dute jatorri ezezaguna edo zalantzazkoa duten objektuen aurkezpenak edo bestelako erabilerak saihesteko. Jakin behar dute objektu horien aurkezpenetatik edo bestelako erabileretatik ondorio kaltegarriak atera daitezkeela, alegia, kultur ondasunen legez kanpoko trafikoa ontzat ematen dela, eta trafikoa horren aldeko ekintza bat dela.

### **BESTE BALIABIDE BATZUK**

#### *4.6 Argitalpenak*

Museoek argitaraturiko informazioak, edozein dela ere argitaratzeko modua, benetakoa eta zuzena izan behar du, eta aintzat hartu behar ditu, era arduratsu batean, informazio horretan aurkezten diren jakintza-adarrak, gizarte-ereduak edo sinismenak. Museo baten argitalpenek ezin dituzte arriskuan jarri haren arau eta kalitate-eskakizunak.

#### *4.7 Erreproduktzioak*

Museoek, beren bildumetako objektuen erreplikak, erreprodukzioak edo kopiak egiten dituztenean, jatorrizkoaren osotasuna errespetatu behar dute, eta kopia horiek faksimileak direla jakinarazi behar dute marka iraunkor baten bitartez.

## **5. Museoetako baliabideek beste zerbitzu eta onura publiko batzuetarako aukera eskaintzen dute.**

*Printzipioa: Museoek espezialitate, gaitasun eta baliabide material askotarikoak erabili ohi dituzte, museoaz harago ere baliatu ahal direnak. Horrek baliabideak partekatzea ekar dezake, edo beste zerbitzu batzuk ere eman ahal izatea, museoaren ohiko jardueraz gain. Museoak ezarritako misioa arriskuan jarri gabe antolatu beharko dira beste zerbitzu horiek.*

### **IDENTIFIKAZIO ZERBITZUAK**

#### *5. 1 Legez kontra edo zilegi ez den eran eskuratutako objektuak identifikatzea*

Museoek, identifikazio-zerbitzuak eskaintzen badituzte, ezin dute jokatu jarduera horretatik probetxua ateratzen dutela (zuzenean nahiz zeharka) egozteko moduan. Objektu bat identifikatu edo egiaztatu behar denean eta legez kontra edo zilegi ez den eran eskuratua, eskualdatua, inportatua edo esportatua izan delako susmoa edo ustea dagoenean, ez da identifikazio edo egiaztapen hori jendaurrean zabalduko agintari eskudunei jakinarazi arte.

#### *5.2 Egiaztatzea eta balioztatzea (prezio-finkatzea)*

Museoek beren bildumak balioztatzea erabaki dezakete, aseguruia egite aldera. Beste objektu batzuen balio ekonomikoari buruzko irizpenak beste museo batek eskatuz gero edo legezko agintaritzaz edo herri-erakunde eskudun batek eskatuz gero emango dira, ez bestela. Guztiarekin ere, museoa bera objektu edo ale baten onuradun izatea gertatu ahal denean, prezio-finkatzea museoak ez beste norbaitek egin beharko du.



## **6. Museoak lankidetzan estuan jarduten dira hala bildumen jatorrizko komunitateekin nola beren zerbitzuak jasotzen dituzten komunitateekin.**

*Printzipioa: Museo bateko bildumak jatorrizko komunitateen kultur eta natur ondarearen adierazpideak dira eta, hortaz, jabetza soilarena baino esanahi zabalagoa dute, lotura aski sendoak izan baititzake jatorrizko nortasun horrekin (nazio-, eskualde-, herri-, etnia- edo erlijio-nortasunarekin edo nortasun politikoarekin, alegia). Garrantzitsua da, beraz, museoaren politikak hori aintzakotzat hartzea.*

### **BILDUMEN JATORRIA**

#### *6.1 Elkarlana*

Museoek sustatu egin behar dute beren jakintza, dokumentazioa eta bildumak bildumen jatorrizko herrialde eta komunitateetako beste museo eta kultur erakunde batzuekin parteka dadin. Ondarearen zati garrantzitsu bat galdu duten herrialdeetako edo eskualdeetako museoekin elkarteak sortzeko aukera ere aztertu behar da.

#### *6.2 Kultur ondasunak itzultzea*

Museoek prest egon behar dute, kultur ondasun bat haren jatorrizko herrialde edo komunitatera itzultze aldera, elkarrizketa-bideak izateko. Prozesu hori inpartzialtasunez egin behar da, printzipio zientifiko, profesional eta humanitarioak ez ezik, legedia aplikagarria ere (tokian tokikoa, naziokoa edo nazioartekoa) aintzat hartuta; horiek lehenetsiko dira gobernu-ekintzen edo ekintza politikoaren aurretik.

### *6.3 Kultur ondasunak itzultzea*

Baldin eta herrialde edo herri batek eskatzen badu objektu edo ale bat itzul dakion, eta frogatu ahal bada dena delako objektu edo ale hori nazioarteko hitzarmenak edo nazioko hitzarmenak urratuz esportatua edo eskualdatua izan zela, eta herrialde eta herri horren kultur edo natur ondareko zatia dela, objektu edo ale hori daukan museoak berehala hasi behar du, dagokion erantzukizunez, objektu edo ale hori itzultzeko neurriak hartzen, baldin eta legeak eragozpenik jartzen ez badio.

### *6.4 Okupatutako herrialde batetik eskuratutako kultur ondasunak*

Museoek galarazita dute lurralde okupatuetatik eskuratutako kultur ondasunak erostea edo bereganatzea, eta zorrotz bete behar dituzte kultur edo natur ondasunen inportazioa, esportazioa eta eskualdaketa arautzen dituzten lege eta hitzarmenak.

## **ZERBITZUA JASOTZEN DUTEN KOMUNITATEEKIKO ERRESPETUA**

### *6.5 Gaur egungo komunitateak*

Baldin eta museo baten jarduerak komunitate jakin bati edo haren ondareari eragiten badiote, beharrezkoa izango da, objektuak eta aleak eskuratzeko, aldeak ados jartzea eta eragiketari dagokion guzti-guztiaren jakinaren gainean egotea, objektuaren edo alearen jabea edo informatzaileak esplotatu gabe. Ezinbestekoa izango da komunitate horren nahiak errespetatzea.

### *6.6 Komunitateekin loturiko jarduerak finantzatzea*

Museoaren jardueretarako finantzaketa bilatzeko orduan, jarduera horiek komunitate jakin bati eragiten badiote, ez zaie kalterik eragin behar komunitate horren interesei (*ikus 1.10 atala*).

### *6.7 Jatorria egungo komunitateren batean duten bildumak erabiltzea*

Jatorria egungo komunitateren batean duten bildumak erabiltzen direnean, giza duintasunari zor zaion errespetuz jokatu behar da, eta, orobat, material hori erabiltzen duten tradizio eta

kulturentzako errespetuz. Bildumok erabiliko dira gizakien ongizatea, gizarte-garapena, tolerantzia eta errespetua sustatzeko, eta gizarte-, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna bultzatzeko (*ikusi baita ere 4.3 atala*).

#### *6.8 Komunitateko laguntza-elkarteak*

Museoek behar bezalako giroa sortu behar dute komunitateen sostengua jasotzeko (adibidez, museoek lagunen elkarteak eta bestelako laguntza-elkarteak); gainera, ezagutza egin behar diete komunitateei beren ekarpenengatik, eta haien eta museoek langileen artean harreman harmoniatsua sustatu behar dute.

## **7. Museoak legearen mendean daude.**

Printzipioa: *Museoek nazioarteko, eskualdeko, nazio-mailako eta tokian tokiko legediaren arabera jardun behar dute guztiz, bai eta hitzarmenek xedatutako betebeharren arabera ere. Gainera, legeak museoek, haren bildumei edo eragiketei buruz ezarritako mandatu, betebeharrak edo baldintza oro bete behar dute museoetako zuzendaritza-organismoek.*

### **LEGEDIA**

#### *7.1. Nazio-mailako eta toki-mailako legedia*

Museoek lege-xedapen nazional eta tokiko guztien arabera jokatu behar dute, eta beste estatuen legedia errespetatu, beren jarduerari eragiten dieten neurrian.

#### *7.2 Nazioarteko legedia*

Museoen politikak nazioarteko tresna juridiko hauek errespetatu behar ditu, ICOMen Deontologia Kodea interpretatzeko arau gisa baliatzen baitira:

- Gerrateetan kultur ondasunak babesteko Hitzarmena (Hagako Hitzarmena, lehen protokoloa 1954an, eta bigarren protokoloa 1999an)
- Kultur ondasunen legez kontrako jabetzaren inportazioa, esportazioa eta eskualdatzea debekatzeko eta ekiditeko hartu beharreko neurriei buruzko Hitzarmena (UNESCO, 1970)
- Arriskuan dauden basalandare- eta basafauna-espezieen nazioarteko trafikoari buruzko Hitzarmena (Washington, 1973)

- Biodibertsitateari buruzko Hitzarmena (Nazio Batuak, 1992)
- UNIDROIT hitzarmena, lapurtutako edo legez kanpo inportatutako kultur ondasunei buruzkoa (1995)
- Urpeko kultur ondarea babesteko Hitzarmena (UNESCO, 2001)
- Kultur ondare materiagabea babesteko Hitzarmena (UNESCO, 2003)

## **8. Museoek profesionaltasunez dihardute.**

Printzipioa: *Museoetako lanbidea duten profesionalak arlo horretako arau eta legeak errespetatu behar dituzte eta beren lanbideari dagokion ohorez eta duintasunez jokatu. Babestu egin behar dute jendea legez kanpoko edota deontologiaren aurkako jokabide profesionaletatik. Bidezko bitarteko guztiak erabili behar dituzte, jendeari lanbidearen helburu, xede eta asmoen berri emateko, museoek gizarteari egiten dioten ekarpena hobeto uler dadin.*

### **JOKABIDE PROFESIONALA**

#### *8.1 Dagokion legedia ezagutzea*

Museoetako profesional guztiek ezagutu behar dituzte beren lanbidearekin zerikusia duten legeak, nazionalak eta tokikoak, bai eta beren lan-kontratuaren baldintzak ere. Eragotzi egin behar dituzte ezegokitzat edo bidegabetzat jo daitezkeen jokabideak.

#### *8.2 Erantzukizun profesionala*

Museoetako profesionalak nahitaez jarraitu behar dituzte eurak enplegatzen dituzten dituzten erakundeen politikak eta prozedurak. Alabaina, aurka egin diezaiokete halako praktika zehatz bati, baldin eta uste badute museoari edo lanbideari kalte egin diezaiokeela, edota deontologia profesionalaren kontra dagoela.

#### *8.3 Jokabide profesionala*

Lankideenganako eta museoarentzako leialtasuna bete behar profesional garrantzitsua da, eta lanbideari aplikagarri zaizkion funtsezko deontologia printzipioetan oinarritu behar da. Museoetako lanbidea duten profesionalak ICOMen Deontologia Kodearen xedapenak bete behar dituzte, eta museogintzaren inguruko beste kode edo politiken jakitun egon.



#### *8.4 Erantzukizun akademiko eta zientifikoak*

Museoetako kideek bildumei buruzko informazioaren gaineko ikerketa sustatu behar dute, bai eta informazio horren zainketa eta erabilera ere. Hortaz, saihestu egin behar dute datu akademiko eta zientifiko horiek galtzea eragiten duten jarduerak edo gorabeherak.

#### *8.5 Legez kanpoko trafikoa*

Museoetako profesionalek ez dute inoiz jardungo, ez zuzenean ez zeharka, natur edo kultur ondasunen legez kanpoko trafikoa edo merkataritzaren alde.

#### *8.6 Isilpekotasuna*

Museoetako profesionalek babestu egin behar dute beren lanaren ondorioz eskuratutako isilpeko informazioa. Gainera, museoetara identifikatzera ekarritako objektuei buruzko informazioa ere isilpekota da, eta ezin da argitaratu ezta ezein erakunde edo pertsonari jakinarazi ere, objektu horien jabeek baimena berariaz eman ezean.

#### *8.7 Museoen eta bildumen segurtasuna*

Museoetako langileek isilpekotasun erabatekoa atxikiko dute, eginkizun ofizialak betez bisitatzen dituzten museoen eta bildumen eta lokal pribatuen segurtasunari dagokionez.

#### *8.8 Isilpekotasuna gordetzeko betebeharraren salbuespena*

Isilpekotasuna legezko betebeharraren baten menpe dago, alegia, lapurtu edo legez kanpo eskuratu edo eskualdatu diren ondasunen gainean poliziak edo beste agintaritzak eskudunek egin beharreko ikerketetan laguntza eskaini behar da.

#### *8.9. Independentzia pertsonala*

Lanbide guztietan langileek nolabaiteko independentzia pertsonala izateko eskubidea badute ere, museoetako profesionalek jakin behar dute beren negozio pribatuak edo interes profesionalak ezin direla guztiz bereizi langiletzat dituen erakundetik.

### *8. 10 Harreman profesionalak*

Museoetako profesionalak lan-harreman ugari izaten dituzte, bai museo barruko jendearekin bai kanpokoekin. Horiei guztiei zerbitzu profesional eraginkorrak eta goi-mailakoak eman behar dizkiete.

#### *8.11 Kontsulta profesionalak*

Museo batek erabaki eraginkor bat hartzeko behar besteko gaitasunik ez duenean, langileek beren kideei (erakunde barrukoei nahiz kanpokoek) egin behar diete kontsulta, betebeharrak profesionala dute hori.

### **INTERES-GATAZKAK**

#### *8. 12 Opariak, mesedeak, maileguak edo bestelako abantaila pertsonalak*

Museoetako langileek ez dute opari, mesede, mailegu edo bestelako abantaila pertsonalik onartuko, beren lan-eginkizunen ondorioz eskaintzen zaizkienean. Kasu batzuetan opariak eskaini eta onar daitezke, adreitasun profesionalaren izenean, baina truke horiek erakunde interesdunaren izenean baino ezingo dira egin.

#### *8. 13 Kanpo-enpleguak edo negozio-interesak*

Museoetako profesionalak nolabaiteko independentzia pertsonala izateko eskubidea badute ere, jakin behar dute beren negozio pribatuak edo interes profesionalak ezin direla guztiz bereizi beren museoaren jardueretatik. Ezin dute onartu ordainpeko beste lanik, eta ezin dute onartu museoaren interesekin bateraezina den edo dirudien kanpo-komisiorik.

#### *8. 14 Kultur edo natur ondareko ondasunen merkataritza*

Museoetako profesionalak ezin dute parte hartu, ez zuzenean ezta zeharka ere, kultur edo natur ondareko ondasunen merkataritza-jardueretan (objektuak irabazia egiteko asmoz saldu edo erostea).

### *8. 15 Negoziatzaileekiko harremanak*

Museoetako profesionalek ezin dute onartu negoziatzaile, enkantegile edo beste edonorengandik inolako opari, dohaintza edo ordainsaririk, baldin eta bairatzeko gibel-asmoz egiten badira, alegia, objektuak erostera edo lagatzera edo ekintza ofizial bat exekutatzera edo ekiditera bultzatzeko gibel-asmoz. Gainera, ezin diote publikoari negoziatzaile, enkantegile edo prezio-ezarle jakin bat gomendatu, inoiz ere ez.

### *8.16 Bilketa pribatuak*

Museoetako profesionalak ez dira beren museoekin lehiatuko objektuak eskuratzeko edo biltzeko jardueretan. Aitzitik, bilketa pribatuen inguruko jardueretarako, horietan arituko diren museo-profesionalek eta zuzendaritza-organoek hitzarmen bat adostu behar dute, eta hori estu eta zorrotz bete.

### *8.17 ICOMen izena eta ikurra erabiltzea*

“Museoen Nazioarteko Kontseilua” izena, “ICOM” akronimoa edo erakundearen ikurra ezin da erabili irabazi-asmodun eragiketarako edo produktuak sustatzeko.

### *8. 18 Beste interes-gatazka batzuk*

Gizabanako baten eta museo baten artean beste interes-gatazkarik sortuz gero, museoaren interesak nagusituko dira.